



185. zenbakia

• APIRILA 2019 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Gregorio Urdaniz Irurita soziologoa

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Berueteko herria

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 8an bidalia

Olerkia



"MAIATZA"

Kirmen Uribe

||

Begira, sartu da maiatza,
Zabaldu du bere betazal urdina portuan.
Erdu, aspaldian ez dut zure berri izan,
Ikarati zabiltza, ito ditugun katakumeak bezala.

Erdu eta egingo dugu berba betiko kontuez,
Atsegin izatearen balioaz,
Zalantzekin moldatu beharraz,
Barruan ditugun zuloak nola bete.

Erdu, sentitu goiza aurpegian,
Goibel gaudenean dena irizten zaigu ospel,
Adoretsu gaudenean, atzera, papurtu egiten da mundua.
Denok gordetzen dugu betiko besteren alde ezkutu bat,
Dela sekretua, dela akatsa, dela keinua.

Erdu eta larrutuko ditugu irabazleak,
Zubitik jauzi egin geure buruaz barre.
Isilik begiratuko diegu portuko garabiei,
Elkarrekin isilik egotea baita
adiskidetasunaren frogarik behinena.

Erdu nirekin, herriz aldatu nahi dut,
Nire gorputz hau albo batera utzi
Eta maskor batean zurekin sartu,
Gure txikitasunarekin, mangolinoak bezala.

Erdu, zure zain nago,
Duela urtebete etendako istorioa jarraituko dugu,
Ibai ondoko urki zuriek uztai bat gehiago ez balute bezala. ||

Utzi begietara begiratzen.
Nola zauden jakin nahi dut.
Rainer W. Fassbinder



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Pulunpeko argazki lehiaketa abian da!

Argazki lehiaketa



Hemen dugu berriro Pulunpeko argazki lehiaketa. Aurten bosgarren lehiaketa antolatzen du Ametza Kultur Elkartek eta ekainaren 16a arte aurkezten ahal dituzue zuen irudiak.

Hemen duzue argazki lehiaketarako Ametza elkartearen oharra:

Ametza Elkartek bosgarren argazki lehiaketa zabaltu du aurten. Hemen bizi den edozeinek hartu dezake

parte eta originalak igortzeko epea ekainaren 16an bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu. Pasaia soilak ez dira onartuko. Jendea, bertako lanak, kirolak...denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Ea animatzen zareten, gu sariak banatzeko prest gaude eta.

Argazki lehiaketaren baldintzak **amezti.eus**-en irakurtzen ahal dituzue:

[https://amezti.eus/
basaburua/1554889521500-
bosgarren-argazki-lehiaketa](https://amezti.eus/basaburua/1554889521500-bosgarren-argazki-lehiaketa)



▲ Ama Lurra, Lorea Basterretxea Iraizotzarraren irudia, bigarren saria eskuratu zuen aurreko lehiaketan



Udal Hauteskura

M26an

Udal hauteskundeetako zerrendak aurkeztu dira

Apirilaren 24an jarri zituzten ikusgai Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Aldaketak badaude, eta baita errepikatzen diren zenbait hautagai ere.

Bi udalerritan bakarrik aurkeztu dira bi zerrenda: Ultzaman eta Odietan. Basaburuan Esther Lakasta aurkeztuko da berriro zerrendaburu, baina taldeko hainbat kide berriak dira.

Anuen zerrenda berri bakarra izango da hautagai. Maider Ochandorena alkatea buru den zerrenda agertzen da Aldizkari Ofizialean, baina inor aurkeztuko ez zelakoan eman zuten izena. Azkenean, Miguel Ángel Larrayoz gidatzen duen Agrupación Burdindogui zerrenda berria aurkeztu zenez, Agrupación Independiente Anuek atzera egin du.

Hona hemen zerrendaburu bakoitzak bere programatik nabarmentzen duena. Atetz faltan sumatuko duzue, lehendabizikoz aurkeztu direnez, gure galderak ez erantzutea nahiago izan dute. EH Bildu aurkeztu da bertan, eta Jose Arriaga Sarriguren da zerrendaburu.

▼ Miguel Ángel Larrayoz Vidán, Larrayoz Etxea



Anue



Basaburua

▲ Ezk.-esk.- Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Esther Lakasta, Marimar Ansorena eta Ricardo Arangoa. Behean, Olatz Dorai eta Julen Beunza

BASABURUA:
ESTHER LAKASTA PEREZ-ILZARBE,
EH BILDU

ANUE:
MIGUEL ÁNGEL LARRAYOZ
VIDÁN,
AGRUPACIÓN BURDINDOGUI

● **“Bailararen alde lan egin nahi dugu, bizilagunen egitasmoak eragiten eta babesten”**

Adineko jendearen, gazteen eta emakumeen interesak izango dituzte ardatz, bereziki. Kultura ere lehentasuna izango da zerrenda berri hau osatzen duen taldearendako. Helburua bizilagunen ilusioa eta haien parte-hartzea handitzea da.

“Herritar guztion parte-hartzea ahalbidetuko duen udal politika eta gardentasuna bultzatuko dugu”

Aurreko lau urteetan martxan jarritako proiektuei jarraipena eman nahi diete, besteak beste: haur eskolaren kudeaketa publikoari, adinduen gelari, alokairu sozialeko etxebizitzetzi, Apeztegi berriko igo-gailuaren ezarpenari, Abiadura handiko Internet sarearen hedapena osatzeari; eta, honen harira, Internet sarea kudeatzeko Basanet enpresa publikoa funtzionatzen jartzeari.



▼ Alfredo Alzueta Unzué



Imotz

IMOTZ:
ALFREDO ALZUETA UNZUE,
EH BILDU

“Azkeneko 8 urteetan eraikitako azpiegiturak martxan jarri nahi ditugu”

Azpiegitura horien artean Latasako Geltokia bultzatu nahi dute, bereziki. Bertako biltegia turismo informazio gunea, jatetxea eta denda bihurtu dute, eta bizikletaz hurbilduko den turismoa bultzatu nahi dute. Gainera, Muskitzen zaharberritutako Itsasonean, dagoeneko, sortu dituzten egitasmoak ere indartuko dituzte, genero berdintasuna bultzatzen dituztenak nabarmenduz.

▼ Juan Peñalver Hermida, Gorria




Odieta

ODIETA:
JUAN PEÑALVER HERMIDA,
ODIETA MARTXAN

“Kontzejurik gabe Udalak ez du zentzurik”

Udalaren kudeaketa kontzejuen eskuetan egotea da haien helburuetako bat. Kudeaketa horretan haien parte-hartzea eta garrantzia handitzea, alegia. Udalaren baliabideak kontzejuen ideiak aurrera eramateko erabiltzea da proposatzen dutena, eta horregatik beharrezkoa ikusten dute kontzejuen lana, bizilagunen iritzia jasotzeko eta haien parte-hartzea bultzatzeko.

▼ Alberto Urdaniz Elizondo, Loperenako Borda



Odieta

ODIETA:
ALBERTO URDANIZ ELIZONDO,
ODIETAKO ELKARTE
INDEPENDENTEA

“Kontzejuekin batera lan egiten jarraituko dugu bizilagunen eskaerei erantzuna emateko”

Gizarte politiken babesa eta zerbitzuetarako azpiegituren hobekuntza dira nabarmentzen dituzten gaietako bi. Ur sareen hobekuntza eta Interneterako banda zabala bultzatuko dituzte. Gainera, ondare material eta immaterialaren kontserbazioari eta berreskuratzeari garrantzia ematen diote, San Urbanoko ermita ekintza kulturalerako erabili nahi dute, adibidez.



Lantz

▲ Isabel Baleztena Larraza, Zurginenea

LANTZ:
ISABEL BALEZTENA LARRAZA,
AGRUPACIÓN INDEPENDIENTE LANTZ

“Bost bizilagunek osatzen dugu taldea, ohiko alderdietatik aldentuta kudeatzeko”

Legealdian sortzen diren gaiei erantzuna emateko eta Lantz ordezkatzeko adi egonen dira. Gaur egun aberastasun garai bat bizi dutela diote. Ume asko

eta familia gazte ugari dagoela azpimarratzen dute, bizitza herrian egiten dituztenak. Sortzen dituzten egitasmoei erantzuna ematen zaie eta giro polita izaten da.



▼ Patxi Pérez Arregui, Martinzena

**Ultzama****ULTZAMA:**
PATXI PÉREZ ARREGUI,
AGRUPACIÓN ULTZAMA

“EH Bilduk azken lau urteotan aurrera eramandako neurriak bertan behera uzteko lan egingo du Agrupación Ultzamak”

Haien ustez Ultzama ezaguna zen erkidegoan eta estatuan, ingurumenean etajasangarritasunean zuen garapen handiarengatik. Gaur egun, ordea, atzerapen adibidea dela deritzote. Hirigintza ordenantzak aldatuko dituzte eta zergak gutxienera jaitziko dituzte, etxebizitza berrien eraikuntza errazteko.

▼ Martin Pikabea Aguirre, Etxeberriako semea

**Ultzama****ULTZAMA:**
MARTÍN PIKABEA, EH BILDU

“Bizilagunen iritzia kontuan hartuz eta gardentasunez gauzak egiten jarraitu nahi dugu”

Gizarte irekiagoa eta parekideagoa lortzeko apustua egiten dute. Aldi berean, azpiegiturak hobetu nahi dituzte zerbitzuak hobetzeko, besteak beste, banda zabala hedatu, eskola egokitzeko inbertsioak egin, gimnasio bat eraikitzea eta poligonoko partzelak egokitzeko. Hori guztia, ingurumena eta baliabide naturalak zainduz eta arduraz kudeatuz.

KONTZEJUAK

Kontzejuetarako zerrendak honako herri hauetan aurkeztu dira:

Anuen: Egozkuen, Etulainen eta Leazkuen.

Atetzen: Aroztegin, Berasainen, Beuntzan, Zigandan eta Erizen.

Basaburuan: Arraratsen, Berueten, Gartzaronen, Itsason, Igoan, Ihabenen, Orokieta-Erbitin eta Udabe-Beramendinen.

Imotzen: Etxalekun, Erason, Latasan eta Oskotzen.

Odietan: Anotzibarren, Gaskuen, Gendulainen, Latasan, Ostitzen eta Erripan.

Ultzaman: Arraitz-Orkinen, Larrain-tzarren, Zenotzen, Urritzola-Galainen, Gerendiainen eta Ilarregin.

PARLAMENTURA

Parlamenturako zerrendetan bi bizilagun topatu ditugu: Arantzazu Izurdiaga Osinaga, Odietan bizi dena; eta Francisco Pérez Arregui ultzamarra.

***Oharra:** hautagaiei egindako galdeketa, osorik, **amezti.eus**-en. Zerrendak, osorik, 78. Nafarroako Aldizkari Ofizialean: http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2019/78/Anuncio-o/





Errugbi gaupasa arrakastatsua



Jendetza izan zen aurten ere Larraintzarko pilotalekuan ospatutako errugby gaupasan. 400 pertsona izan ziren afaltzen, eta gauean ere bete egin zen pilotalekua.

Goizez, Ultzama trail lasterketa martxan zen bitartean hasi ziren lanean BRT-Menditarrak taldeko mutilak. Iluntzerako dena prest behar zuen, eta hala izan zen.

Eltzaburuko 'Ostatu' artzaiaren hamasei bildots su mantsoan erretzen hasi ziren, zikiroan egiteko; Egozkueko Zubillaga izan zen horren arduradun. 400 laguni eman zieten afaltzen zikiroa, eta ondoren kantu zaharrak izan zituzten Joxe Anjel soinujolearekin.

Afaltzen izan ziren horietaz gain, gauean jende ugari hurbildu zen pilotalekura, Puro Relajo eta Trikidantz taldeen musikaz gozatu eta ondoren, DJ-arekin gaupasan luzatzeko. Giro ederra izan zen.

BRT-Menditarrak taldeak behar zuen bultzada jaso zuen larunbatean, lanean eta errugbia bultzatzen segitzeko gure inguruetan.



▲ BRT taldeak egindako kartela





Bueltan da Beruetekeo Ostatua

Berritze lanak amaituta, Aste Santurako ireki zuten berriz.

Ia 3 hilabetez, urtarrilaren bukaeratik, egon da itxita, berritze lanak egin bitartean. Araudira egokitu dute eraikina: komunak aniztasun funtzionaleko edo behar bereziak dituzten pertsonendako egokitu dituzte, zorua aldatu dute, barra mugitu dute, eta jatetxea tabernatik banantzen zuen pasabidea kendu dute. Horiek dira, besteak beste, egin dituzten lanak. Luzeegi egin zaio jabeari, baina ia hiru hilabetez itxita egon ondoren, Aste Santurako ireki zuten, apirilaren 16an.



Beruetekeo_ostetua_berritua ▲

Auzolanean bildu dira Etsainen, zabortegi bat garbitzeko

Zabortegi zahar bat garbitzeko deialdia egin zuten apirillean, eta bizilagun ugari bildu zen. Horrela, garbi-garbi utzi zuten bidea.

Aspaldi zegoen zaborraz gainezka Juangorenaren bordarako bidea, eta garbitzeko 20 bizilagun inguru bildu

ziren. Hiru gurdi bete zituzten bildutako beiraz, plastikoz eta latez, eta mankomunitateak paratutako edukiontzi guztiak bete ziren. Eraitza ikusita inork ez luke sinistuko bertan zabortegi bat zenik.




Alicia Aranguren Arrietaren argazkia ▲


Espainiako gorteetako hauteskunderen emaitzak

Apirilaren 28an izandako Espainiako kongresuko hauteskundeetako emaitzak dituzue hemen, udalerriz udalerrri.


Anue




Ultzama




Odieta




Lantz




Imotz



Basaburua



Atez





iritzia



Andoni Egaña,
Berria egunkarian

Saltxitxak

2019ko apirilaren 16an

Batzuk ideien inguruan mugitzen dira, eta ideiak izaten dituzte etengabeko eztabaidagai. Besteak diruaren jiran ibiltzen dira, eta diruak xextrak bai, baina eztabaida ideologikorik nekez sortzen du. Eta hortik abiatuik esplikatu izan da zergatik ezkerreko alderdiek zatitzeko joera duten beti eta eskuinekoek errazago eusten dioten zatiketarik jasan gabe. Pentsatzea ez da nonbait beti eraginkor.

Gutxitan adinako zatiketa azaldu du Espainian eskuinak azken boladan, eta horrek ideien eztabaidaren arrazoi klasikoa bera zalantzan ipintzen du. Baina gogor ari dira zaunka. Eta gainerako alderdiek argi sumatu dute zein den estrategiarik egokiena. Bati baino gehiagori entzun diogu: «Mamua dator. Mamitu ez dadin, guri eman botoa. Inork baino hobeto geraraziko ditugu». Eta onar dezagun arrazoirik ez zaiela falta...

Kanpainan, bakoitza bere burua bista-bistan ipintzen ahalegintzen den sasoi honetan, Jorge Luis Borgesek bota zuena datorkit gogora: «Nik proposatuko nuke politikariak pertsona publiko ez izatea». Eta ez daukat ahaztua Otto Von Bismarkek esan zuen hura ere: «Legeak eta saltxitxak antzekoak dira. Ia hobe da nola egiten diren ez ikusita». Bigarren esalditik hurbilago gaude lehenengotik baino. Tamalez.

Aitatxi eta amaxiren eguna Xinbili Xanbala



Bilobek egindako idatzia ▲

Apirilaren 17an ospatu zuten haur, guraso eta aitatxi-amaxiek azken hauen eguna. Xinbili Xanbala haur eskolan egin zuten ospakizuna.

9:30 aldera hasi ziren lehenengoak iristen, eta haurrak jolasean aritu ziren, aitatxi eta amaxien batera. Gosaria ere prestatu zuten, goiza pasatzeko behar ziren indarrak hartzeko. Goiza amaitu baino lehen, opari bana egin zizkieten bilobek aitatxi eta amaxiei.

Xinbili Xanbalaren partez, gerturatu ziren amaxi eta aitatxiei eskerrak eman nahi dizkiete goiz polit hura pasatzeagatik. Denek disfrutatu zuten pila bat, eta haur eskolarendako ere ohorea dela aipatu digute hezitzaileek, “hain jakintsuak eta maitasunez betetakoak diren horiek gurean izateagatik”.



▲ Xinbili Xanbala haur eskolan jolasean

Zaharrak berri

Etsain: Eskolazaharra salgai

Etsaingo herria bere Eskolazaharra deitua saltzeko asmotan da. Hor dugu elizaren azpiko aldean.

Toki zoragarria, Etsaingo bi auzoak bere oinetan dituela. Oraindik ez da atera saltzera, baina adi egon, luze gabe aterako du eta.

Ea hemengoren baten beharra ase lezakeen!



▲ Etsaingo eskolazaharra

Ostitz: etxeak salgai

Ostitzen bada aukera. Hori da guri erran digutena eta etxeak ere zerrendatu dizkigute. Beraz ez daiteke gezurra izan.

Prezio eta aukera desberdinak dituzu. Etxe zaharrak, berriak, garestiak, merkeagoak... baduzu denetarik. Guk gutxien-gutxienez zazpi kontatu ditugu, orube (solar) bat barne.

Beraz, etxea behar baldin baduzue, hemen duzue aukera. Ez dugu deus hirietatik etortzen den jendearen kontra, baina bertakoendako bada, hobe! Ikus eta beharbada... nork daki, Ostizko bizilagun izanen zaitugu.



▲ Ostitz

Ultzama aldeko

Ultzama aldeko populazioa eta demografia 2008-2018

Ultzama aldea osatzen duten den populazio osoari dagokionez, bailaretan azken hamar urteetan izan honako datu hauek ditugu:

1. taula: Ultzama aldeko populazioa 2008-2013-2018 aldian.

BAILARAK/BIZTANLEAK URTEAK	2008	2013	2018
ANUE	374	460	485
ATETZ	249	238	212
BASABURUA	841	874	839
IMOTZ	439	434	425
LANTZ	112	139	147
ODIETA	352	366	369
ULTZAMA	1651	1692	1655
ESKUALDEA, GUZTIRA	4.018	4.203	4.132

Iturria: NEI. Nafarroako Estatistika Institutua. ▲

Etengabeko errolda. Egileak berak egina.

Aurreko taulan ikusten denez, oro har, Ultzama aldeko populazioak aldaketa gutxi izan du azken hamar urteetan. Joerahorrek bere horretan jarraitzen du 80ko hamarkadatik, garai hartako biztanle kopurua 4.143 baitzen eta gaur egun 4.132.

Bailara bakoitza bere aldetik aztertuz gero, aldaketa txikiak agertzen dira. Deigarriena da Anue eta Lantzko udallerrietako igoera, eta Atetz eta Basaburuko jaitsiera; nolanahi ere den, gorabeherak ez dira estatistikoki esanguratsuak. Beraz, datu absolutuei erreparatuta, populazioa finko samarra da Ultzama aldean.

Adin taldekako banaketa. Ondoren, eskualdeko populazioaren egituraketa aztertzen da adin talde zabaletan: 0 eta 15 urte artekoak, haurrak; 16 eta 64 artekoak, helduak eta 65 baino gehiagokoak, adinekoak. Eta alderatzen dira Ultzama aldeko datu orokorrak Nafarroako eta hura osatzen duten bailaretako batezbestekoarekin.



Ettxalekun jaunartzea. 9 lagun. Orain 10 urte behar dira 9 haur kontatzeko ▲

2. taula: Adin taldekako banaketa. 2018. urtea.

BAILARAK/ADIN TALDEAK	0-15 URTE	16-64 URTE	65 EDO GEHIAGO	POPULAZIOA, GUZTIRA
ANUE	18,4	60,4	21,2	485
ATETZ	12,2	60,0	27,8	212
BASABURUA	15,6	62,6	21,8	839
IMOTZ	14,6	58,6	26,8	425
LANTZ	23,8	47,6	28,6	147
ODIETA	17,6	61,5	20,9	369
ULTZAMA	15,9	61,9	22,2	1.655
Eskualdeko batezbestekoa	16,1	61,0	22,9	4.132
Nafarroako batezbestekoa	16,6	63,8	19,5	647.554

Iturria: NEI. Nafarroako Estatistika Institutua. ▲

Etengabeko errolda. Egileak berak egina.

Hona hemen kopuru aipagarrienak: 0 eta 15 urte artekoen taldean ia ez dago alderik Nafarroako batezbestekoarekin; Bailaraka aztertuz gero, aipagarriena da Lantzko herrian gertatzen dena: bertako haurren proportzioa eskualdeko altuena da, %23,8; eskualdeko batezbestekoa, berriz, %16,1 da; aldi berean, 65 urte baino gehiagoko proportzioak ere nabarmengainditzendu orokorraren batezbestekoa. Beraz, proportzioan, Lantz da eskualdeko udalerrien artean haur eta adineko gehien

duena. Atetz da adineko gehien duen bailara; izan ere, populazioaren %12,2 haurrak dira, eta %27,8 adinekoak. Nabarmenezkoa ere bada Imotzek duen adinekoen proportzio handia, 65 urte baino gehiago dituzten bizilagunak %26,8 baitira. Gainerako udalerriek kopuru antzekoak agertzen dituzte haien artean.

Batez besteko adina. Adin taldekako egituraketaz gainera, interesgarria da edozein populazioaren batez besteko adina jakitea. Ultzama aldeko biztanleek 45,7 urteko batez

besteko adina dute. Nafarroako batezbestekoa 43,1 urtekoa da. Hortaz, nafarren batezbestekoa baino pixka bat “zaharragoak” gara. Bestalde, aipatu beharra dago Atetz 48,6 urterekin eta Imotz 47,3rekin direla bizilagunen adinaren batezbesteko altuena duten bailarak.

Sexuaren arabera banaketa. Sexuaren arabera banaketa adierazle garrantzitsua da edozein lurraldeko oreka sozialari begira. Horri dagokionez, honako datuak ditugu:

3. taula: sexuaren arabera banaketa. 2018. urtea.

BAILARAK/SEXUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	POPULAZIOA, GUZTIRA
ANUE	53,2	46,8	485
ATETZ	56,1	43,9	212
BASABURUA	57,0	43,0	839
IMOTZ	53,4	46,6	425
LANTZ	60,0	40,0	147
ODIETA	54,7	45,3	369
ULTZAMA	51,8	48,2	1.655
Eskualdeko batezbestekoa	54,0	46,0	4.132
Nafarroako batezbestekoa	49,5	50,5	647.554

Iturria: NEI. Nafarroako Estatistika Institutua. Etengabeko errolda. Egileak berak egina. ▲

Ultzama aldeko

Azterketa eremu honetan sexuen arteko desoreka nabarmena antzematen da. Gizonezkoen presentzia %54 da; emakumezkoena, berriz, gainerako %46. Oso bestelakoa da Nafarroa osoko kopuruekin alderatuta, bi sexuen arteko proportzioa ia berdina baita. Datu horien azalpen soziologikoa izaten ahal da, lana eta harreman sozialak bilatzeko, hirietara emigratzeko joera handiagoa dela emakumeen artean. Gurea bezalako landa eremu honetan, gizonezkoak bizi izan dira lotuago nekazaritza eta abeltzaintza lanei.

Sexuen araberako populazioaren desoreka hori deigarria da, bereziki, gizonezkoen alde, Lantzen %60, Basaburuan %57 eta Atetzen %56,1. Baina, bailaraguztietan da gizonezkoen aldekoa.

Atzerriko biztanleak/immigrazioa. Eskualdean erroldaturiko atzerriko biztanleak 123 ziren 2018. urtean, populazio osoaren %3. Nafarroan, urte horretan erroldaturiko atzerritarrak %9 dira; hau da, Nafarroakoarekin alderatuta, gure eskualdean fenomeno horren eragina hiru aldiz txikiagoa da.

Berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa. Atal honetan aipatzen dira jaiotzak, heriotzak eta

haien arteko aldea, azken hamarkada honetako urteko batezbesteko gisa kalkulaturik.



Igoako Etxezarreko Maritxu zena bere bilobekin ▲

4. taula: jaiotzak, heriotzak eta hazkundera. Urteko batezbestekoa, 2008-2018 hamarkadan

BAILARAK/GERTAKARIAK	JAIOZAK	HERIOZAK	BEREZKO HAZK.	POPULAZIOA, GUZTIRA
ANUE	5	4	1	485
ATETZ	2	2	1	212
BASABURUA	7	7	0	839
IMOTZ	4	5	-1	425
LANTZ	3	1	2	147
ODIETA	4	3	1	369
ULTZAMA	14	18	-4	1.655
Eskualdeko batezbestekoa	39	40	-1	4.132

Eskualde osoko berezko hazkundera ia zero da; urtean batez beste 39 lagun jaio eta 40 (-1) hiltzen dira, aurreko taulan ikusten den bezala. Hau da, azken hamarkadan, Ultzama aldeko populazioa ez da ia aldatu berezko barne dinamikaren eraginez. Gainera, egoera aldatzeko aukerak urriak dira, besteak beste, emakume emankorren kopurua nekez aldatuko baita heldu diren urteetan. Hartara, eskualdeko biztanle kopuruan izaten diren gorabehera gutxi horiek immigrazio prozesuei eta erroldatze berriei loturik daude.

Ezkontzak eta izatezko bikoteak. XXI. mendearekin batera ezkontzako harremanen eta bikoteen jokabide soziala erabat aldatu da. Ezkontza erlijiosoak heren batera murriztu dira, eta gora egin dute ezkontza zibilek eta izatezko bikoteek. Oraingohamarkadan eskualdean erregistraturiko ezkontzen urteko batezbestekoa 16 izan da, oso kopuru txikia. Zenbateko horri oso ohikoak diren “izatezko bikoteak” gehitu behar zaizkio; sozialki zeharo onartuta daude eta, kasu askotan administrazio-egintza baten bidez erregistraturik agertzen ez badira ere, familia berrietako asko halakoak dira.

Familiako kideen kopurua. Eskualdeko familien kide kopurua nagusiki oso murrizta da, familia kideen batezbestekoa 2,5 inguru da. Kasu askotan, gainera, etxe batean pertsona bakarra bizi da eta zahar samarrak izaten dira. Horrek esan nahi du horiek zaintzeko beharra dagoela.

Ondorioz, Ultzama aldeko biztanleria gelditu eta zahartu samarra dago; batez besteko adina 45,7 urtekoa da eta biztanleen %23k 65 urte baino gehiago ditu. Bestalde, gizonezkoak nabarmen gehiago dira emakumezkoak baino, 117 gizon 100 emakume bakoitzeko. Eta hazkunde endogenorako ahalmen urria

du; beraz, hazkundera immigrazioaren arabera koaizanenda, erroldatze berriak sustatu behar dira, eta bizilagunei bertan bizitzen gelditzeko erraztasunak eman behar zaizkie, horrela, lurralde honen jarraikortasuna bermatzeko.

Gregorio Urdaniz Irurita
Soziologoa



▲ Iruñeko Pio XII etorbidearen hasieran.
Familiari eskainitako monumentua





21. *Korrika**Eskualdean ere klika!*

Apirilaren 8an izan genuen 21. Korrika gure eskualdean. Iluntzean sartu zen Imoztik, eta Basaburua, Ultzama, Odieta eta Atetz zeharkatu ondoren gauerdian atera zen Imoztik. Jende ugari aritu zen herriz herri eta kilometroz kilometro korrika.

Ohikoa den bezala, aurtengoan ere ilusio handia piztu du korrikak gurean. Errepide bazterretan urduri itxaroten zuen jendeak korrikaren furgoneta, eta behin korrikan hasiak irribarreak baino ez, eta neke aurpegiren bat, kilometro ugari eginak zituztenen aurpegiak.

Gure bizilagunen esku ugarik hartu zuten lekukoa: haur, gazte, zahar, ikasle, irakasle, langile, alkate, zinegotzi, kirolari... euskararen alde denak.

Korrika iristeko zain egon bitartean, merendu eta afari ugari egin zituzten hainbat herritan, jendetsuena, akaso, Aroztegiko Izarpe kanpinean egin zutena. Hamarnaka lagun bildu ziren bertan, afalostean korrikari ekiteko,

hotzari aurre egiteko gorputza ongi berotu behar baitzen.

Aurtengo korrikan ere, Ultzama aldeko bizilagunen inplikazioa beharrezkoa izan da eta erantzun ona izan du. Hasieran Korrika batzordeak eratu ziren, eta Korrika Kulturala antolatu. Bertan, eskualdeko musikari eta artista ugarik hartu zuten parte: Ana Ibañez eta Dani Martirena, Joana Ziganda, zirkua, Txari Eleta edo Iñaki Larraioz besteak beste. Giroa berotzea lortu zen eta hilabete batez euskarazko ekimen eta ikuskizunek eskualdea blaitu zuten, eta parte hartze handiarekin gainera.

Korrika iritsi bitartean eskualdeak “klika” egitea lortu zen. Baina eskuz esku eraman den lekukoaren barneko mezuak zioen bezala, orain hasi behar da “klika” hori, hemendik aurrerakoa da garrantzitsuena. Mezua osorik ekarri dizuegu aldizkari honetara, Korrika Gasteizko bestarekin amaitu ez dadin hemendik bi urtera arte.

Basaburuko errepidean



Muskizko herri barnean

klika! **SISTEMA ERAGILEAN**



*Euskara gaur egun arte,
ta Gasteizaino KORRIKA,
ekarri dugunoi: biba,
gora, eutsi, goza...*

...**KLIKA!**
Hizkuntza ez da edukitzea.
Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika.

Beraz, **KLIKA!**
Instalatu eta elika!
Euskara, ez da euskararen
gauzetarako aplikazioa.
Euskarak behar du
herri honen Sistema Eragilean.
Memoria handiko lur honen
hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa.

Euskara, bestelakoa baita...
Hain zuzen, besteak bezain bestelakoa.
Bestelakoa eta besteak bezalakoa.

Baina besteekiko badu alde bat:
euskarak dena du aurka;
eta horrexegatik juxtu, dena du mauka!
Dena baitu sortzeko, euskarak,
ia dena du-eta sortzeke.
Dena du egiteko, euskarak, dena du egiteke.

Hizkuntza bat dugu ahulguztiduna.

...
Hala ere, korrika egiten dugu.

...
Izan ere, hainbeste maite gaituzte erakundeek,
alderdi politikoek, komunikabideek...
korrika gabiltzala...

...
Zergaitik gutxietsiko ote gaituzte hainbestetan
oinez gabiltzanean...?

*Ikusiko da... ea euskara
arreta osoan gaur den,
bihar erdi, etzi laurden,
ta laster berriz al gauden
azkentasunetan aurren.*

Korrika egiten dugu, lehenetik eta gerorantz.
Korrika egiten dugu,
Euskal Herria eta elkar ezagutzeko.

Korrika egin, munduari gure oinekin eragiteko.

Egin, eragiteko.
Eragin, eginarazteko.
Norbanakoak egin.
Herri mugimenduek eragin.
Erakundeek eginarazi.

Egin, eragin, eginarazi.

Aukerak eskaini eta euskara eskatu.
Datozenei ere eman euskararen ostatu
eta eskertu
eta ospatu.

Gu elkartzen gaitu zer ospatuak.
Gu, eta Gu honen baitako Gu-ak:

Umeak, gazteak, helduak, zahartuak...
Ahoskera berri eta zarratuak.

Zuek eta haiek,
zakurrak, katuak...
Sardeak, mantalak, *gigak* eta datuak.
Azalak, ahotsak...

Sei kontinenteetan sakabanatuak,
Sei kontinenteetatik guganatuak.

Arnasgunekoak, oxigenatuak.

Erribera idortu ta mahats zanpatuak...
...elebesteratuak.
eta neskenegunak eta zapatuak.

Euskaraz sortuak
eta euskararatuak.

Mundu bat euskarak,
mende erdia Euskara Batuak,
eta ehunka milaka bizitza eta gogo
EUSKARAK BATUAK.

Majalen Lujanbio Zugasti

21. ^{æk}korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra **GARESTIK GASTEIZA**



Nestor Domeño Beuntza,

Nestor Domeño Beuntza, Gerendiaingo okina

Ultzamako azken okina elkarriketatu nahi izan dugu gaurkoan. Bere etxean izan gara, Gerendiaingo okindegia izandakoan. Etxe honek atzeko aldean Gerendiaingo errota zaharra atxikia du.

Nestorren aita ere okina izan zen, Eusebio Domeño Bailon. Eusebio hau olaguearra zen sortzez nahiz bere aita Egueskoa izan, eta ama, berriz, Anueko peto-petoa.

Eta zer gisa edo zergatik etorri zen zuen aita Ultzamara?

Bai, gure aita soldaduska bukatu ondoren, Gerendiaingo okindegiko nagusiak, Ignacio Iraizotz beratarak Berara eraman zuen lanera. Hori 1924an edo izanen zen. Eta kontua da, Sanfermin batzuez, ustez 1926. urtean, Iruñera zihoazen eta bidenabar Gerendiainen sartu ziren eta ezuste handia izan zuten, bertako enkargatuak okindegia utzi eta Sanferminetan zeramatzala 4 edo 5 egun, negozioa erabat abandonaturik. Orduan erabaki zuen gure aita hemen behar zuela denen kargu. Eta hori egin zuen berehala Ignaciok.

Eta okindegian jarri zen bizitzen.

Ez, ez, lehenik apopilo edo, **Lopenean** egon zen (Pioren etxea bezala ezagunagoa)

Eta zuen ama izanen zena, etxeko alaba.

Bai, eta harremanetan hasi eta laster ezkondu ziren, 1930. urtean edo. Eta "Betelu" edo **Perutxenea** deitzen den etxean jarri ziren bizitzen, okindegiko jabearena baitzen. Hemen sortu ginen senide guziak: Maria Angeles, Nestor, Fernando eta Jose, zaharrenetik gazteenera.


Eta ondoren etorri zineten Errotara eta okindegi honetara?

Ez, askoz ere beranduago. Gure aitak Iraizotzen **Tabernazarrea**

erosi zuen eta han bizitu ginen urte frankoz, gure aitak Gerendiaingo errotaren kontra etxe hau egin zuen artio, hori 1958. urtean gutxi gora-behera izan zen. Eta Iraizotzkoa saldu egin genuen.

Beraz, ordurako zuen aitak erosia izanen zuen Errota eta okindegia.

Bai, bai. Ignacio Iraizotz zahartu zen eta hau uztea erabaki zuen. Orduan, hau dena gure aitak eta Gelbentzuko bentako Tomas Irurek, erdibana erosi zuten. Noiz izanen zen? Ez dakit ba, 1953. urtean edo, gutxi gora-behera. Irure, dena dela, ez zen hemen lanean aritzen, esne biltzen, bere kontu ibiltzen baitzen. Ordurako gu bi anaiok, Jose eta ni, negozio honetan ari ginen, gazte-gaztetarik.



Nestor Domeño Beuntza, ▲



▼ Ugaldea urez xuhur samar. Eta errotako kanala urik gabe. “Ugaldeak agortzen ari dira. Kanala beti urik gabe dugu. Lehen besterik zen” Hori egia bada, zergatik ote?



• NOLA ZEN OKINDEGIKO LANA

Zenbat lagun aritzen zineten okindegian?

Okindegian, ogi egiten, beti hiru lagun aritzen ziren, gauez. Eta gero ogi banatzen beste bat, hasiera batean, banaketa ez baitzen eskualde guzian egunero egiten. Egun batean alde batera joaten ginen eta hurrengoan bestera, horrela jendeak ogia bi egunetik behin hartzen zuen; ondorean bai, egunero-egunero toki guzietara joan behar izaten genuela. Badakizu garai batean errotako kanaleko urekin mugitzen genituela okindegiako makinak?

Harrigarria! Eta zenbat ogi egiten zenuten?

Banaz beste, urte gehientsuan eguneko zortziehun kilo irin behar izaten genuen, 1.200 ogi egiteko.

Eta udan ere kantitate bera?

Ez, udan frankoz ere gehiago. 1300 kilo irin zenbait egunez. Badakizu, etxeetan belarrak sartzeko garaian eta, jende asko izaten zen. Gero festetan zer esanik ez. Eta mendian



Kanaleko urekin mugitzen genituen makinak



aritzen zirenak ere kontutan hartu behar dira. Esate baterako, Anuek atera zuen oihan bat Saioa aldean eta 10 urtez aritu ziren lanean mendi mutilak. Kable bat jarri eta Arraizko benten gaineko aldera ateratzen zituzten trunkoak. Eta lantegi horretan igual izanen ziren 100 lagun lanean. Bi egunetik behin uzten genizkien ogiak, 200 ogi, kilokoak, izugarri handiak.

Eta gerra ondoren, zer ogi mota egiten zenuten?

Errazionamendu garaian ogi beltza egiten genuen, irina bere zahiarekin izaten baitzen. Irina osoa. Hemen baziren zenbait etxe irin zuria saltzen geniena, baina gure etxean ez zen ogi zuririk inoiz jaten, beti ogi beltza.

Nondik ekartzen zenuten irina?

Atarrabian izaten zen fabrikabat, gero Berriozarko Zortzikotik, Castejondik ere bai... Errazionamendua bukatu zenean fabrikak berek zuzenean ekartzen ziguten.

Bai, zaku handi haiek ezagutu izan ditut.

Hori, ehun kilokoak ziren. Eta dena bizkarrez egiten genuen, kamioitik bizkarka biltegira eta bertan pilatu. Dena bi lagun artean. Kamioi bakoitzak 100 zaku ekartzen zituen. Bazeneki zer zaku pilak deskargatu ditudan! Eta ez dut bizkar hezurreko minik inoiz izan!

• PANASA

Baina, noizbait ogi egiteari utzi zenioten.

Bai, hala da, Nafarroako okin zenbait, asko hobeki esateko, elkarrenganabildu eta ogia denendako egitea pentsatu zen labe bat erabiliz. Horrela sortu zen PANASA enpresa eta gu ere hor sartu ginen. Orduan, aitzak utzi zuen erabat hemengo negozioa eta Irureri bere parte a erosi eta bi anaiok sartu ginen PANASAn. Hori 1968. urtean izan zen. Eta urte honetatik aurrera ogi banaketa egiten segitu genuen, gutxi gora-behera, lehengo lekuetan.

Beste kontu frankoz ere iharduki dugu Nestorrekin, nola jarri zuten Errota honetan Ultzamako Rural Kutxa eta Jose nola sartu zen Kutxa honetan eta abar. Baina, batez ere, bera nola ibili zen jubilatuta artio pentsu saltzen, Ultzama, Odieta eta Basaburuan. Kontu horietaz guzietaz idazteko beste noizbait beharko du, Nestor.



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Okina:** Panadero. Hemendik dator Okiñena deitura.
- **Okindegia:** Panadero.
- **Biltegia:** Almacen.
- **Iharduki:** Zerbaitetaz hitz egin. Hemengo ere bada hitz hau.



Mendi lasterketen

Ultzama trail eta Nafarroa Xtrem

Duela bost urte oso bestelakoa zen egoera, Ultzama aldean ez zen mendi lasterketarik egiten, eta bi dira egun egiten direnak. Bata berri-berria, Ultzama Trail, eta bestea, korrikalari gehienek egutegian egonkortu den lasterketa handia, Nafarroa Xtrem.

Apirilean izan dira bi lasterketak, hilabete hasieran bata eta amaieran bestea, eta oso lasterketa ezberdinak izanagatik ere, biak ekarri nahi izan ditugu orrialde hauetara.

● 135 KORRIKALARI ULTZAMA TRAIL LASTERKETAN

Kostta baina azkenean aurtan jaio da Ultzama Trail lasterketa. Ideia, aldiz, lehenagotik zetorren, baina aurtan eman zuen aurrera pausoa Ultzamako Udalak korrikalari talde batekin elkarlanean antolaturik.

Ibilbidean desnibel handirik jarri ez arren, mendi lasterketa ederra sortu zuten antolatzaileek, eta irteera marran zeuden korrikalari guztiek

ederki gozatu zuten, hala esan ziguten askori. Eguraldia ere lagun izan genuen, eta bereziki, Arafñotz eta Beuntzalarreko parajeetan oso gustura aritu ziren gora eta behera.

10 kilometroko lasterketa laburrean 61 kirolari aritu ziren, eta 19 kilometroko luzean 74, osotara 135. Sailkapenean azpimarratzekoa Mikel Beuntzaren bigarren postua 19 kilometroko lasterketan. Hemen dituzue podiumetako sailkapenak, osorik **amezti.eus** webgunean.

19km

Emakumeak

- | | | | |
|----|----------------------------|---------|--------|
| 1. | Maider Fraile Artze | 1:33:34 | Uharte |
| 2. | Uxue Murolas Agerri | 1:34:57 | Iruñea |
| 3. | Laiane Arrospide Garmendia | 1:35:05 | Tolosa |

Gizonak

- | | | | |
|----|------------------------|---------|--------|
| 1. | Raul Amatriain Arraiza | 1:14:16 | Uitzi |
| 2. | Mikel Beuntza Iraizotz | 1:15:07 | Alkotz |
| 3. | Ion Sola Torralba | 1:15:41 | Iruñea |

10km

Emakumeak

- | | | | |
|----|------------------------|-------|-----------|
| 1. | Laura del Pino Gajete | 49:12 | Iruñea |
| 2. | Nahia Etxetxikia Eugi | 52:06 | Atarrabia |
| 3. | Maialen Elia Sarasibar | 53:28 | Iruñea |

Gizonak

- | | | | |
|----|---------------------------|-------|---------------|
| 1. | Iker Diges Izko | 38:40 | Uharte-Iruñea |
| 2. | Alberto Azparren Telleria | 38:56 | Oibar |
| 3. | Fran Castillo Blanco | 39:35 | Zarrakaztelu |



Mikel Beuntza, atzean Larraintzar duela. ▲
Tim's Goikoetxearen argazkia



● ARITZU, PROTAGONISTA BESTE BEHIN NAFARROA XTREM LASTERKETAN

Maila handiko lasterketa bilakatu da Nafarroa Xtrem, eta estatuko korrikalaririk onenetariko batzuk etorri dira aurten. 68 kilometroko lasterketa da ospea ematen diona, baina bai 33koak zein 21ekoak, jende askori egiten diete dei.

Azken hau da Aritzu protagonista egiten duena. Joan zen urtean egin bezala, Anuetik atera zen aurten ere maratoni erdia, arratsaldean, eta batzuek 33 kilometrokoa egin ondoren. Zubiritik autobusez eraman zituzten korrikalariak Aritzura, eta bertatik Zubiriraino izan zen lasterketa, eta kasik iluntzean iritsi ziren asko.

Ultzama aldeko kirolari ugari aritu ziren lasterketan. Nabarmentzeko da Saioa Muñoz Vizcay ziaurritzarraren parte hartzea eta 12. postua 68 kilometroko lasterketan. Hemen dituzue sailkapen batzuk:

NX33K Gizonezkoak

1. Imanol Larrañaga 2:50:15
2. Raúl Amatriain 2:52:19
3. Víctor Amatriain 2:54:59

NX33K Emakumezkoak

1. Amaia Amantegui 3:20:39
2. Sarah Ugarte 3:25:09
3. Izas Zubizarreta 3:39:21

NX68K Gizonezkoak

1. Sergio Tejero 7:04:06
2. Álvaro Ramos 7:04:06
3. Xabier Zarranz 7:15:53

NX68K Emakumezkoak

1. Silvia Ainhoa Trigueros 8:48:36
2. María Irigoyen 8:49:20
3. Irene Guembe 9:04:48



Nafarroa Xtrem Adi gainean. Ainara Landa. ▲



▲ Lizaso eta Larraintzarren arteko basoan. Tom's Goikoetxearen argazkia.



Sotoan dut ardo frexkoa

Azken ARDO FREXKOAN kontatutakoak, ardo berotutik, ardo mikatzetik, ardo garratzetik, ardo ozpindutik gehiago utzi zigun beste deusezetik baino. Eta gaur ez dugu “Euskara hil egin da” edo “hil egin zaigu” sailerako beste ale bat gehituko, urte batez bi atera ditugu eta denbora puxka bat pasatzea hobe izanen dela deritzot. Askí dugu oraingoz ardo txarretik, ez dugu nahi urdaila otintzea.

Eta horregatik denboraz urrundu nahi nuke; denboraz eta lekuz urrutiratu aho zapore txarra uzteko. Gaur Imoztik Lapurdiraino joanen gara, eta XIX. menderaino. Bertsolari bikain bat ekarriko dugu hona: Piarres Ibarrart “Bittiri” bertsolaria, Lapurdiko bertsolaria. Jatsun jaio eta Baigorri bizitu zena.

Beste bertso eta kantu anitzen artean, “Mutilzabar bat bere mahastian” kantu irigarri eta jostariaren egilea. Edo beste gisa batera aipatua dena: “Aitak eman zerautan” (zidan)

Mutilzabar edo donado baten istorio xelebreak jalkitzen dira eta bere sotoko oporrari dion maitasun guztizkoa. Bertso guztiak “sotoko ophorra” rekin bukatzen dira. Beti buruan sotoa eta ardoa. Eta edateko ontzia behar: oporra.

Honela dio bere buruaz:

*Gorphutza baitut sano, arpegia gorri
Hortako dute nitaz zerbait erran
nahi,
Bainan ez naiz, ni
Nihoiz ibili
Oraino moxkorra,
Izanagatik maite... sotoko ophorra.*

Eta irakurle horren sarirako, horra bigarren bat:

*Herriko zahar batzuk, sotorat
ethorriz,
Han idukitzen naute lehertua irriz,
Konkorrek kanta,
Mainguek dantza,
Oihuka elkhorra...
Biba! zaharrak eta... sotoko ophorra.*

Eta biak hirugarrenazor:

*Badut moltsa luza bat urhez
hanpatua,
Hal'ere ezkontzeko lotsaz gelditua,
Beldur bainintzen
Gerta zadien
Andrea mokorra,
Eta hauts ostikoka... sotoko ophorra*

Eta Piarres bezala, nik ere, hala bukatu nahi nuke gaurko Ardo Frexkoa, sotoko ardo frexkoarekin, sotoan hala izan ohi baita: Biba ardo frexkoa eta... biba sotoko oporra!



Txurdan

Hiztegia

Otindu: Bihotzerrea egin estomagoan.

Soto: Etxe baten azpian, lurraren mailatik behera dagoen gela edo tokia. Bodega.

Oporra: Goporra, zurezko ontzi ttiki bat. Sotoan ere ardoa edateko ibiltzen zutena.

Elkorra: Hemen sorra esan nahi du. Hala ere, gure herrietan hitz honek beste esanahi bat du: lur idortua eta gogortuari esaten zaio. Jendea ere zahartzean elkortu egiten da, gogortu.

Konkorra. Chepa eta Cheposo.

Moltsa: Boltsa

Urhez: Urrez

Mokorra: Zakarra, lehorra, bekoz koduna. Antipatico-a



Sotoko kupelak. ▲

V. ARGAZKI LEHIAKETA



Joan zen urteko argazki irabazlea, Alfredo Garcia-Falces Larrañetarena

1. SARIA: 300€

2. SARIA: 200€

3. SARIA: 100€

Ametza Kultur Elkartek V. argazki lehiaketa antolatu du

Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea **ekainaren 16an** bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu. Pasaia soilak ez dira onartuko. **Jendea, bertako lanak, kirolak...**denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Baldintza plegua amezti.eus webgunean



Patxi Irurzun

Ultzamako liburuzaina

“Historia liburuetan agertzen ez diren haiei ahotsa ematen saiatzen naiz nire eleberrietan”

Patxi Irurzunek idazten du, normalean, Zer Irakurri sail hau. Honetan, ordea, erredakzioari egokitu zaigu, Ultzamako liburuzaina bera baita sailaren protagonista. Diez mil heridas eleberri historikoa argitaratu berri du, apirilean, Patxik. Hala ere, abenturazko nobela dela esatean nahiago du berak. XV eta XVI. mendeetan kokatzen da eta umore ukitu nagusi baten bidez, historian benetan esitutako pertsonaien eta idazleak asmatutakoen joan-etorriak kontatzen dizkigu.

Eleberri historikotzat jotzen dute, baina zerk du pisu gehiago, eleberriak ala historiak? Hau da, fikzioak edo gertaera historikoez, benetan gertatutakoak?

Nik nahiago dut abenturazko eleberritzat jotzea. Baina, bai, XV. eta XVI. Mendeetan kokatzen da eta alde hortatik eleberri historikoa dela esan daiteke. Hala ere, nobela da, fikzioa, nahiz eta bertan agertzen diren pertsonaia asko benetan garai hartan bizi izan ziren. Vianako printzea, adibidez, edo Santxikorrota bidelapurra. Nik asmatutako esklaboak eta pikarok ere agertzen dira, garai hartan badakigu bazeudela. Nik beti esaten dut historia liburuetan agertzen ez diren haiei ahotsa ematen saiatzen naizela nire eleberrietan. Baina argi utzi nahi dut ni ez naizela historialaria, idazlea baizik, eta nire asmoa jendea ongi pasatzea eta jakinmina piztea da. Historiari buruz, letra handiz, jakin nahi duenak beste liburu batzuen bila joan behar du.

Pertsonaia ugari agertzen da, kontaiguzu haiei buruzko zerbait, has gaitzen Pedro Guinearekin, nor da?

Pedro Guinea aspaldiko laguna

dut (barreak). Diez mil heridas idazten hasi nintzenean, batez ere, Nafarroako historiako lapurrei buruz idaztea nahi nuen, Santxikorrota buruz, adibidez. Santxikorrota gure ‘Robin Hood’ izango litzateke, Nafarroako Robin Hooda. XV. mendean bizi izan zen eta kondairak kontatzen duenez, Erriberako Bardeetan aberatseei lapurtzen zien pobreei lapurtutakoa emateko. Kontua da hori kontatzeko haurrendako ipuin bat idatzi nuela eta bertan agertzen zen dagoeneko Pedro Guinea. Bera Erriberako jauregian esklaboa zen Santxikorrotak askatzen duen arte. Eleberrian protagonismoa hartzen joaten da, bere istorioa bakarrik ez, bere semearen istorioa ere kontatzea erabaki baitnuen. Diez mil heridas saga bat modukoa baita, hiru zatitan banatua.

Gero, Anton Agirre pertsonaiaren bizipenak aurkituko ditugu...

Pedro Guinearen biloba da bera, pikarok eta eleberriaren narratzailea. Nik ‘pikareska’ri buruzko eleberriak asko atsegin ditut eta beti idatzi nahi izan dut horrelako zeozer. Honetan aukera izan dut eta liburuaren bigarren zatian egin dut. Oso gustora gelditu naiz, uste dut

doinua ongi harrapatu diodala eta oso dibertigarria dela. Anton Agirrek bidaia egiten du hainbat hiritan zehar: Salamancan, Valladoliden, Iruñean eta Tuteran izaten da, azkenean, Sevillan bukatzeko. Abentura asko biziko ditu, komiko gisa. Nik oso ongi pasatu dut bere istorioa idazten, espero dut irakurleek ere dibertitzea.

Bukatzeko, Zaideren joan-etorriak irakurri ahalko ditugu, Tormesko Itsumutilaren aitaizun beltzaranaren joan-etorriak, hain zuzen ere.

Omenaldi bat egin nahi izan diot Tormesko Itsumutilari eta Álvaro Núñez ‘cabeza de vaca’ri. Lazaroren aitaordea beltzarana da eta orduan erabaki nuen Pedro Guinearen semea izatea eleberrian. Haien istoria eleberriaren hirugarren zatian agertzen da, Zaideren joan-etorriak Álvaro Núñezekin batera. Bera konkistatzaile bat edo antikonkistatzaile bat da, American zehar bidaia bat egin zuen oinez eta Naufragio liburuan kontatu zuen. Ameriketako indio batzuekin bizi izan zen 10 urtez, galduta baitzen, eta haiek bezala bizitzen bukatu zuen, horregatik diot antikonkistatzaile bat dela.



Zaide beltzarana, Pedro Guinea esklabu afrikarra, beltzaran gutxi agertzen dira normalean Mendebaldeko eleberri historiakoetan, baina historiaren parte garrantzitsua izan dira, ezta hala?

Bai, noski, nik horregatik idatzi dut nobela hau. Datu bat emango dizuet: XVI.mendean biztanleriaren %10 beltza edo 'mulatoa' zen, eta haietatik gehienak esklabuak ziren. Hala ere, oso datu ezezaguna da eta nik pertsona horiek, literaturaz medio, ikustera ematea nahi nuen. Aldi berean, justizia poetikoa egin nahi nuen, nire eleberrietan askatasuna lortzen baitute eta hor dago liburuaren kokka, askatasuna edo haren bilatzea da gai nagusia.

'Los dueños del viento' nobelaren ondoren, bigarren eleberri historikoa duzu hau. Estilo bera erabili al duzu?


Badaude ezberdintasunak. Los dueños del viento serioagoa da, ni normalean umorea erabiltzen dudana. Umore hori faltan botatzen nuen ez Diez mil heridas liburuan oso presentea egon da. Hori da ezberdintasun handiena. Umorea, abentura, historia, denetarik dago liburu honetan.

Ez da erraza izanen, gaur egun, norberak idatzitako zerbait liburu dendetara iristea, ezta?

Urte asko daramat honetan, izan ere, pasa den egunean konturatu nintzen 30 urte pasa direla nire lehenengo ipuina argitaratu nuenetik. Ibilbide horri esker niretzat ez da horren zaila, orain argitaletxe potente baten bidez lortu dut liburua argitaratzea, eta Los dueños del viento Mexikoko eta Argentinako librudendetan ere egotea lortu genuen. Baina, bai, mundu hau, orokorrean, oso zaila

da, baita, teorian, errazago izan dugunontzat ere. Nik orain esan dezaket liburuei esker bizi naizela, nik argitaratzen ditudanei esker, baina baita liburutegian besteenak

zaintzen egiten dudana lanari esker, noski! (barreak). Bide batez, bertan, Ultzamako liburutegian, oso gustora nagoela esan nahi dut.



▲ Diez mil heridas, azala.

Leurtzako urtegieta


anfibioak eta narrastiak

Argiaastekariak, beremendeurrenaren harira antolatutako txangoa izanen da. Iñaki Sanz Azkue eta Ander Izagirre Egaña biologoak izango dira ibilbidearen gidariak. Biak Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, eta narrasti eta anfibioetan adituak.



▲ *Sugandila arrea*

Urtegi inguruko fauna ezagutzeko aukera izango dugu eta ekosistema horretan bizi diren animaliak bilatu ahal izango ditugu partaide guztiek, adin guztietarako prestatutako bisita izango baita. Narrasti eta anfibioak nola bilatzen diren erakutsiko digute, zer behar dugun horretarako, aurkitu nahi dugunaren arabera nola eta non bilatu... Topatutako izaki horiei buruzko azalpenak emango dituzte bi adituek, eta parte-hartzaileen galderak eta zalantzak ere erantzungo dituzte.




▲ *Muskier berdea*

Dena den, ez da beti zorterik handiena izaten horrelako bilaketetan, eta badaezpada, paperezko euskarrietan ere eramango dituzte urtegiaren bueltako ekosisteman biltzen diren narrasti eta anfibioen irudiak. Landa koaderno bana oparituko zaio partaide bakoitzari eta bertan izango ditu koloreztatze animalien marrazkiak.




▲ *Txantxiku arrunta*

Leurtzako urtegioko informazio gunean elkartuko dira maiatzaren 18an 10:30ean, eta 14:00ak aldera bukatuko da bisita gidatua.



▲ *Uhandre piriniotarra*

Bertako mahaietan mokadutxo bat eginez emango diote amaiera irteerari. Jatekoa bakoitzak etxetik eramateko gonbitea zabaltzen dute, eta edaria ARGIAren kontu.



▲ *Zirauna*

Garrantzitsua: kopuru mugatua. Eman izena.


Txikitik eragiten lema maiz erabiltzen du ARGIAK, eta oraingo irteeran kopuru oso mugatua izango da, ingurumenean ahalik gutxien eragiteko, eta behatuko diren anfibio eta narrastiekiko errespetua bermatzeko. Gehienez 35 lagunekoko taldea izango da, beraz, eman izena lehenbailehen argiak100urte@argia.eus helbidera idatzita.

Txangoan aurkitu ditzakegun anfibio eta narrastiak.

Eñaut Aiertzaguenak marraztu ditu Leurtzan ikus ditzakegun espezieetako batzuk:




▲ *Ur igel arrunta*



▲ *Suge gorbata duna*

Zorionak Zorionak !



Zorionak Urko !!



Zorionak Ander !!



Zorionak Amets !!



Zorionak Naroa !!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

2018ko martxoa

Gure alderdian, martxoan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

IMOTZ Zarrantz

Xanti Uritz Okiñena, martxoaren 26an jaio zen, Ruben eta Maria Angelesen semea, **Goitikoetxean**.



▲ Xanti, Zarrantzko gazteena

ULTZAMA Arraitz-Orkin

Ekain Larraiotz Uri, martxoaren 1ean jaio zen, Asier eta Amaiares semea. Orkingo **Migelenen**.



▲ Ekain, familiako laugarrena

“ Zorionak gurasoei ”

Alkotz

Nahikari Alzugai Etzeberria, martxoaren 14an jaio zen, Ruben eta Mertxearen alaba.



▲ Beñat, Nahikari sortu berriarekin

Ezkontzak:

IMOTZ Latas

Sergio Jaunarena Altsua, Latasako **Auzetxe** 2koa eta Yaiza Urbano Peña, Irurtzungoa, martxoaren 23an ezkondu ziren. Irurtzunen biziko dira.

“ Mila zorion ezkonberriei ”

Heriotzak:

ANUE Olague

Rosario Etulain Azkarate, **Sastreneko** etxeokonde zaharra, martxoaren 10ean hil zen, 92 urtetan.

ULTZAMA Eltzaburu

Maria Antonia Otermin Agirre, **Txartoneko** etxeokonde zaharra, martxoaren 23an zendu zen, 87 urtetan.



▲ Eltzaburuko Txartonekoa

LANTZ

Aurelia Oiategi Goñi, **Etzeberriko** etxeokonde zaharra, martxoaren 17an hil zen 93 urtetan.

Alkotz

Maria Dolores Garaikoetxea Iturralde (Lolita), **Martixeneko** etxeokonde zaharra, martxoaren 8an hil zen, 85 urtetan.



▲ Lolita Garaikoetxea

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

Suarbe

Asunción Villanueva Sagardia, **Pollo-neko bordako** etxeokonde zaharra, martxoaren 7an zendu zen, 99 urtetan.



▲ Asuncion Villanueva

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com






esan 107.9 erran irratia



ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA DOMINGOA

MUSIKA

0-1								0-1
1-2								1-2
2-3								2-3
3-4								3-4
4-5								4-5
5-6								5-6
6-7			ARGI IBILI					6-7
7-8			FAKTORIA				GOIZ	7-8
8-9			IRUÑERRIAN GAUR ALBISTEGIA				KRONIKA	8-9
9-10			METROPOLI FAROLA					9-10
10-11			EGUNERO ZUZENEAN				LANDABERRI	10-11
12-13			FAKTORIA				bide egiuez	12-13
13-14			GOIZAK GAUR ALBISTEGIA				berzpinha	13-14
14-15			EGUNERO ERREPIKAPENA					14-15
15-16			MUSIKA					15-16
16-17			KONTU KONTARI				soinuzela	16-17
17-18			zebrabidea				adi	17-18
18-19			MUSIKA				kolpez	18-19
19-20	karakola saga hola	ama bota pun errielpetit	a degalambran	hankak lurralan	errielpetit ama bota pun		kolpe	19-20
20-21			EGUNERO ERREPIKAPENA					20-21
21-22			MUSIKA				ESAN	21-22
22-23	KATEDRA	LIZARDIEN BATAIZA	ZUBIAK	EKOEFERA	HIDU ERDEGEN NAHATIA		ERRAN	22-23
23-24			ZAPINZALEA				SESIOAK	23-24



BEREIZKO
IRRATSAIOAK

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA

arrosa garra

ameztineus
bitzamaldekoko albisteak

arrosa
irratia garra

948503232

689033000

pulunpe@gmail.com